



ONDARROAKO EMAKUMEEN UDAL BERTINTASUN KONTSEILUA

BILERA AGIRIA

Eguna	2011ko azaroaren 2a
Ordua	19:00etan
Lekua	Udal batzar gela 1

BERTARATUAK

Uxu- Ondarroako emakumeen Taldea	Rakel Aspiazu
	Begoñe Bengoetxea
Boga-Boga emakume elkarte	Begoña Atxurra
Minbiziaren aurkako elkarte	Marije Ibarloza
Andrabanda Feminista	Begoña Cuesta
	Eider Bilbao
Allarte	Ainara Aramaio
Sarekonpontzaileak	Maite Burgoa
7 emakume en movimiento	Josune Laka
Independientea	Karmentxu Ibaibariaga
Bildu	Saioa Amuriza
	Irati Markes
EAJ	M ^a Dolores Etxano
Kontseiluburua	Rakel Elu
Berdintasun Teknikaria	Rosa Baltar

GAI ORDENA

1. Aurreko aktaren onarpena.
2. 2011ko azaroko kanpaina
3. Emakumeen etxea edota emakumeen elkar-lanerako topagunearen proposamena.
4. 2012ko plangintza-aurrekontuaren aurreikuspena.
5. Eskari-galderak.



1. Aurreko aktaren onarpena.

Kontseiluburuak ongi-etorria ematen dio Maite Burgoari (Sarekonpontzaile elkartearen ordezkariari) eta Josune Lakari (7 emakume en movimiento elkartearen ordezkariari).

Bilera agirian ondorengo zuzenketa sartzen da: "emakumeen etxea" edota emakumeen elkar-lanerako topagunearen proposamena osatzeko lan batzordeen partaideen artean: Ainara Aramaio (Allarte) gehitzen da.

Akats hori zuzendu ondoren, aurreko bilera-agiria aho batez onartzen da.

2. 2011ko azaroko kanpaina.

Egitaraua birpasatu baino lehen Ainara Aramaiok kanpaina erabiltzeko irudiaren proposamen berria egiten du eta aho batez onartzen da. Irudi horrekin 4000 postal banatuko dira.

EGITARAUA

- *AZAROAREN 19tik ABENDUAREN 2ra. Kofradia zaharrear.*
ERAKUSKETA: Indarkeria matxisten aurkako erakusketa globalak: "patriarkaturik gabe denok jabe"
Ordutegia: astelehenetik zapatara: 10:30etik 13:00etara
domeketan: 10:30etik 14:30etara.
- *Azaroak 11. Beldur barik lehiaketan parte hartzeko epea bukatutzat ematen da. Epaimahaiaren erabakia azaroaren **16an** jakinaraziko da.*

Epaimahaiaren eraketan hurrengo aldaketa egiten da: 7 emakume en movimiento elkartearen ordezkari, Gizon Taldeko kide batek parte hartuko du. Beraz, epaimahaia horrela osatuko da.

- Kontseilua: Rakel Aspiazu eta Irati Markes
- Herriko artistak: Nekane Akarregi eta Bittore Laka.
- Gizon Taldeko kide bat.
- Berdintasun sailaren zinegotzia
- Hezkuntza-zinegotzia-

Epaimahaia azaroaren 15ean elkartuko da 19:30ean, udal batzar gelan.

- *AZAROAK 23, 19:00etan Kofradia zaharrear.*
Dokumentala: "Martxan" Indarkeria matxisten aurrean feministak martxan
Hizlariak:
 - *Miren Aranguren (Bilgune Feminista)*
 - *Joana Etxano (Mugarik gabe)*Dokumentalak 32 minutu iraupena du.



- **AZAROAK 25: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNEAN:**

Kontzentrazioaren zein manifestazioaren berri emateko megafonia pasatuko da hilaren 24an eta 25ean. Horrezaz gain, puntu lila jarriko da Alamedan egun osoan zehar.

- 13:00etan. Kontzentrazioa Alamedan. Bertan adierazpen instituzionala irakurriko da. Berdinsareatik proposatzen den testua banatzen da, eta ekarpen ezberdinak azaldu ondoren, erabakitzen da epe bat ematea moldaketak eta ekarpenak proposatzeko.
- 17:30ean, kofradia zaharrear. BELDUR BARIK EKITALDIA. - Finalisten erakusketa eta sari banaketa.
Ekitaldi honetan aurkezle lanak egiteko "Txirrimorrazki" taldeko kideren batekin berba egitea proposatzen da.
- 18:00etan MANIFESTAZIOA Kofradia zaharretik Alamedara, Andrabanda Feministaren partaidetzarekin. Ibilbidean zehar lema ezberdinak botako dira, horretarako eskuko megafonia erabiliko da eta Nekane Akarregiren laguntza eskatuko da. Gainera, globoak banatuko dira, horiek ere herriko ikastetxeetan zabalduz.
- 22:30ean ANTZERKIA: "Azaroak 25... egun normala?", Kafe antzokian.
Antolatzailea: Uxu-Ondarroako emakumeen Taldea.

Uxu- Ondarroako emakumeen taldeak hitzaldiak antolatuko ditu Institutoan. Hitzaldi horietan manifestazioaren berri emango du.

- AZAROAK 26:
 - Eguerdian Allarte Kultur elkarteak salaketa-gunea jarriko du Alamedan: "matxismo identifika eta salatu"
 - Arratsaldeko 18:00etan elkarretaratzea Alamedan: HIESA DENON KONTUA DA. Jarraian Kafe antzokian HIESAri buruzko dokumentala. Gaueko 23:00etatik aurrera **sexu askapenerako 2. Jaia**.
Antolatzailea: EHGAM-Lea-Artibai
- AZAROAK 29. Kofradia zaharrear. 19:00etan
ANTZERKI FORUMA: "Estu-pilulak"
Dinamizatzailea: On:giz berdintasunaren aldeko elkarteak.
Antzerki hau gizonentzat bakarrik izatea erabakitzen da

3. **Emakumeen etxea" edota emakumeen elkar-lanerako topagunearen proposamena.**

Kontseiluburuak azaltzen du Eskola txikiaren 2. Solairua honetarako izango dela. Espazioa ikusteko eta beharrak aurreikusteko hitzordua jartzen da: azaroak 7, astelehenean, goizeko 10:30etan.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia



Espazioaren banaketa, kudeaketa eta funtzionamenduari buruzko proposamenak lantzeko dagokion lan batzordea jarriko da martxan. Aurrekontuaren aurreikuspena egiteko ezinbestekoa da, ahal den arinen, lehenengo batzarra egitea.

4. 2012ko plangintza-aurrekontuaren aurreikuspena.

2012 aurrekontuaren proposamena egiteko beharrezko da, alde batetik, eskola txikiaren beharrak aurreikustea, eta bestetik, elkarte bakoitzaren plangintzaren aurreikuspena. Azken honek kontuan hartuta, elkarte bakoitzak datorren urteko diru-laguntzaren proposamena aurkeztuko du.

5. Eskari-galderak.

Maite Burgoak, sarekonpontzaileen ordezkariak, hitza hartzen du kostaldeko sarekonpontzaileak euren artean batzartzeko daukaten antolaketa azaltzeko, herri ezberdinetan txandakatuz alegia; azken aldiak izan dituzten elkarretaratze nagusien berri eman ostean eta politikariei helarazi dien mezua adierazita.

Bukatzeko, azaroaren 23an, 18:00etan, kofradia zaharrean, azaroak 25eko ekitaldiak prestatzeko azken bilera egingo dela adosten da.

Bilera 21:40an bukatutzat ematen da eta hurrengoaren data zehazten da: abenduak 14, 19:00etan.

Ondarroan, 2011ko azaroaren 30ean.

Izp.: Rosa Baltar Cabo.
Berdintasun Teknikaria